



# UR TAILERRA

Txingudiko Zerbitzuakek uraren ziklo integrala kudeatzen du, hauxe da, euri ura biltzen du, edateko ur bilakatzen du, erabilia izan ondoren araztegiara bideratzen du eta egoera onean itzultzen du naturara. Prozesu hori guztia bi zatitan banatzen da: hornidura, hauxe da, txorrota ireki arte, eta saneamendua, une horretatik aurrera.

Gure asmoa da hezkuntza munduak gure eguneroko lana ezagutzea; izan ere, uste dugu ikasleen prestakuntzarako garrantzitsua dela uraren kudeaketak berekin daramatzen gizarte, ekonomia eta ingurumen inplikazioez jabetzea.

Gure hornidura eta saneamendu instalazioen zailtasun mailagatik, gomendatzen dugu lehenbizikoa lehen hezkuntzan lantzea, eta saneamendua, berriz, konplexuagoa denez, derrigorrezko bigarren hezkuntzan.

Eskuetan dituzun unitate didaktiko hauen helburua da irakasleak eta ikasleak uraren kudeaketa mundura hurbiltzea beren eskualdean bizipen moduan. Espero dugu unitate didaktiko hauek laguntzea gai honen inguruan ikasleen interesa pizten eta beharreko motibazioa sortzen gure instalazioak ezagutzeko bisitaren esperientzia jarduera baliagarri bilaka dadin.

Horretarako, jarrai iezaiozu unitate didaktikoen koloreen kodeari. Kolore horiek lagunduko dizute gure instalazioetara bisita egin aurretik eta bitartean jarduerak behar bezala planifikatzen, gerorako utzita edateko ura izateak ingurumenaren aurrean dituen eraginaren inguruan gogoeta egiteko jarduera espezifikoak.

Ur tailerrean ondo pasatzea espero dugu.

## MATERIAL DIDAKTIKO HAUEK NOLA ERABILI

Txingudiko Zerbitzuakek material didaktiko hauek egin dituenean, irakasleentzat nahiz ikasleentzat ahalik eta praktikoena izan daitezen pentsatuz egin ditu. Era berean, badaki Endarako eta Elordiko instalazioak egokiagoak direla lehen hezkuntzarako eta Atalerrekakoak derrigorrezko bigarren hezkuntzarako, eta horren arabera prestatu ditu materialak.

Uste dugu, xumeak badira ere, gaian sakontzeko aukera eskaintzen duten materialak direla, eta hauen bidez, nahi duten irakasleek uraren zikloa eta ingurumenaren dituen eraginak landu ditzakete hainbat lan saiotan.



Unitate zaharretan oinarritu ditugu materialak, baina eskarmentuak erakutsi digu ikasleek instalazioak ikustera joatean unitate didaktikoak eramaten zituztenean, arreta handiagoa ematen ziotela fitxak betetzeari ingurumen hezitzailearen diskurtsoari baino, eta horrenbestez, lan metodologia berria proposatzea erabaki genuen.

Aintzat hartu beharreko bi alderdi ditu metodologia horrek: erabiltzen den ikonografia eta ikonoen koloreak: Has gaitezen koloreekin. Delako jarduera noiz bete behar den adierazten dute **koloreek**: bisita baino lehen, bisita egiten den bitartean ala bisitaren ondoren.

**LARANJA koloreko ikonoa duten jarduerak bisita baino LEHEN osatu behar dira unitate didaktikoan, irakaslearen laguntzarekin, eta honako hauetarako balio dute:**

- Ikasleei gaia aurkezteko eta oker kontzeptualak, aurreiritziak ... agerrarazteko.
- Bisitara iristean oinarritzko kontzeptuak garbi izateko eta ideia berriak hobeto berenganatzeko.
- Parte hartzea bultzatzeko, ikasleen motibazio maila handiagoa baita.

**Ikono URDINA duten jarduerak bisitaren ONDOREN osatu behar dira unitate didaktikoan, bisita EGIN DEN BITARTEAN ingurumen hezitzaileak eman duen informazioarekin, eta honako hauetarako balio dute:**


- Ideia eta kontzeptu berriak biltzeko, bizitako esperientziarekin hobeto barneratu baitaitezke.
- Ikuspegi zabalagoa izateko, era honetako instalazioek ingurumenean dituzten eraginak ulertzeko eta herritarrok haiek ondo ala gaizki erabiltzen ditugun hobeto jakiteko.

Oharra: Ingurumen hezitzaileak kolore URDINEKO jarduerak osatzeko beharreko informazio guztia eman diela berresteko, edukien gidoia izango dute ikasleek, eta horrenbestez, zerbait falta bazaie, bisitaren AMAIERAN galdetu ahal izango dute. Bisita egiten den bitartean gidoia ez eramatea gomendatzen da.



**Ikono BERDEA duten jarduerak kolore urdineko jarduerak osatu ONDOREN bete behar dira unitate didaktikoan, eta honako hauetarako balio dute:**

- Gogoeta bultzatzeko, bisitan ikasitakoa integratzeko eta eguneroko bizitzan eta ingurumenean nola aplikatu jakiteko.
- Unitate didaktikoen amaieran planteatzen den proiektuari segurtasunez aurre egiteko.

**Ikonografia** irakasleentzako elementua da, eta ariketa bakoitza zein asmorekin egin den uneoro jakin dezaten balio du. Ikono bakoitzaren esanahia azalduko dugu ondoko koadroan.



## UNITATE DIDAKTIKOAN AGERI DIREN IKONOEN ESANAHIA

	<p><b>GOGOETA BULTZATZEKO JARDUERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Gatazka kognitiboa sustatzeko galderak: Ikasleek aldez aurretik dituzten ezagutzak aplikatu behar dituzte erantzuteko eta orduantxe azaltzen dira oker kontzeptualak.</li><li>• Jasotako erantzunen arabera, irakasleek eskola egokitu egin beharko dute irteera egin baino lehen oker horiei konponbidea eman ahal izateko. Horretarako unitate didaktiko espezifikoak dituzte irakasleek.</li></ul> <p><b>Helburua:</b> Gaiari buruzko oinarriko ezagutzak zuzentzea eta barneratzea.</p>
	<p><b>MIAKETA JARDUERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Informazio erabilgarria bildu dezaten bultzatzeko, hori beharrezkoa baita dedukziozko arrazoibidea lantzeko.</li></ul> <p><b>Helburua:</b> Azken proiektua garatzeko beharreko informazioa biltzea.</p>
	<p><b>IKASLEAK KOKATZEKO JARDUERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Hainbat urrats edo etapa dituen jarduera gisa ikusi behar dute irteera, eta jarduera hauek ikaslea behar den lekuan kokatzen dute bisitaldian zehar.</li></ul> <p><b>Helburua:</b> Arazte etapa guztien eta tratamenduaren ordena logikoaren arteko lotura identifikatzea eta azaltzea.</p>
	<p><b>ULERMEN JARDUERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Gatazka kognitiboak sorrarazten dituzte ikasleengan eta bisitaldian zehar jasotako azalpenak ulertzen ari diren egiaztatze aukera ematen dute.</li><li>• Ingurumen hezitzailearekiko elkarreragina eta ikaslearen autonomia bultzatzen dituzte.</li></ul> <p><b>Helburua:</b> Ikaslearen gaitasuna bultzatzea arazketaren fase bakoitza bere hitzekin azal dezan, jasotako azalpenak errepikatze beharrik izan gabe.</p>
	<p><b>IKERKETA JARDUERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Ikasleak dira bisitan protagonistak eta ingurumen hezitzaileari galderak egiten dizkiote. Gidoian ditugu galdera horiek.</li></ul> <p><b>Helburua:</b> Ikasleak ikaskuntza prozesuan inplikatzeko eta beren autonomia bultzatuz motibatzea.</p>
	<p><b>INTEGRAZIO JARDUERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Bisitan ikusitako guztiaren eskema buruan sortzen laguntzen dute.</li></ul> <p><b>Helburua:</b> Ikasleek berenganatu dituzten ezagutzak antolatzea eta integratzea.</p>
	<p><b>AZKEN PROIEKTURAKO JARDUERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Ikasleei azken proiektua egiten laguntzen diete, eta baita ikasitakoa zein neurritan den erabilgarria jakiten ere.</li></ul> <p><b>Helburua:</b> Prozesua osotasunean ulertzea eta ikasitakoaren eta ikasleek dituzten egunerako jokaeren artean loturak ezartzea.</p>
	<p><b>IKASITAKO INGURUMENAREKIN LOTZEKO JARDUERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Uraren tratamendua ingurumenean duen eraginaren murrizketarekin uztar dezaten laguntzen diete ikasleei, eta instalazioak gaizki erabiltzea helburu hori betetzeko eragozpen izan daitekeela azaltzen dute.</li></ul> <p><b>Helburua:</b> Instalazioak gaizki erabiltzeak sorrarazten dituen arazoak barneratzea, ondorioez jabetzea eta instalazioen erabilera iraunkorra bultzatzeko beharreko tresnak lantzea.</p>

Jarduerak bukatu ondoren, **ixte jarduera** bat proposatzen dute material hauek, ikasitako guztiak biltzeko eta azken produktu gisa proiektatzeko. Produktu hori garatzeko gaitasun berriak landu beharko dituzte eta amaiera emango zaio sekuentzia didaktikoari. Irakasleek balorazioa egiteko ere balio izango du.